EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Bizkaia

nexio. consulting
an ieteam_ company

Tarteko ebaluazioaren aurkezpena

Enkarterri eskualdeko Plan Estrategikoa

2026ko maiatza

Alonsotegi · Artzentalesko Udala · balmaseda · Galdames · Karrantza · Lanestosa · Sopuerta · Turtzioz · Zalla

Eskualdeko Plan Estrategikoa lurraldea eraldatzeko programa bat identifikatzeko eta bultzatzeko esparru estrategiko gisa garatu zen. Proiektu estrategiko eta sustatzaileak izan ziren planaren muina, eta lurraldearen erronka nagusiei heltzeko xedea zuten.

GAIKAKO EREMUAK

- Suspertze ekonomikoa
- Enplegua eta prestakuntza
- Gizarte-kohesioa eta zerbitzu publikoak
- Hiri- eta ingurumen-berroneratzea
- Lurraldea eta jasangarritasuna

Proiektu Sustatzaileek Enkarterriko erronka estrategikoei egindako ekarpenaren mapa

Proiektuak	R1 Industria eta jarduera eraldatzaileak bultzatzea	R2 Turismoa dinamizatzea eta jasangarritasuna ren aldeko apustua egitea	R3 Biztanleriaren prestakuntza eta kalitatezko enplegua eskuratzeko gaitasuna indartzea	R4 Eskualdearen errealitatera eta beharrizanetara egokitutako esku-hartzeak egitea gizarte- eta hirigintza-arloan.	R5 Enpresak atxikitzeko, garatzeko eta erakartzeko espazioak sortzea	R6 Mugikortasuna eta garraio jasangarria
Barne- eta kanpo-mugikortasuna hobetzea	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Aktibo turistiko eta kulturalen arteko lotura		✓	✓			
Hezkuntza- eta lan-munduaren arteko integrazioa	✓		✓	✓		
Banda zabala hedatzea	✓	✓	✓	✓	✓	
Enpresentzako espazioak sortzea	✓			✓	✓	
Bioekonomia eta ekonomia zirkularra sustatzea	✓		✓		✓	

Eskualdeko Diagnostikoan identifikatutako erronka estrategikoei heltzeko, sei proiektu sustatzaile identifikatu ziren, eta horietako bakoitzak hainbat jarduketa barne hartzen zituen

PROIEKTU SUSTATZAILEA		HELBURUA
EK1	Barne- eta kanpo-mugikortasuna hobetzea	Konektibitatea hobetzea, barneko eta kanpoko mugikortasuna indartzea, eta eskualdearen lurralde-kohesioan aurrera egitea.
EK2	Aktibo turistiko eta kulturalen arteko lotura	Turismo jasangarria bultzatzea, eskualdeko aktiboak balioestea, eta sektorearekin lotutako jarduera ekonomikoa sortzea.
EK3	Hezkuntza- eta lan-munduaren arteko integrazioa	Prestakuntza hobetzea, laneratzea erraztea, eta prestakuntza- eta enplegu-arrakalak murriztea.
EK4	Banda zabala hedatzea	Konektibitate digitala bermatzea, lurralde-arrakala murriztea, eta digitalizazio ekonomikoa eta soziala erraztea.
EK5	Enpresentzako espazioak sortzea	Enpresentzako lurzorua eta espazioak sortzea, jarduera ekonomikoa erakartzea, eta ekoizpen-ehunaren hazkundea babestea.
EK6	Bioekonomia eta ekonomia zirkularra sustatzea	Baliabide naturalak balioestea, berrikuntza bultzatzea, eta aukera ekonomiko jasangarri berriak sortzea.

Jarduketa bakoitzaren aurrerapen-maila

ENKARTERRI		JARDUKETAK		EJ	BFA	AURRERAPEN-MAILA 1	2	3	4	5
EK1 barne- eta kanpo-mugikortasuna hobetzea	EK1	Kanpaina geoteknikoa, L4 Proiektua	EK1.01	X						2022
	EK1	Eraikuntza-proiektua idaztea	EK1.02	X					●	
	EK1	Ariz terminalaren seinaleztapena	EK1.03	X						2023
	EK1	Ariz terminala berritzea	EK1.04	X						2022
	EK1	EBBS ikerketa 2021 (Balmaseda-Irauregi tartea)	EK1.05	X					●	
	EK1	Irauregi-Lutxana ibilbideko bidea zaharberritzea	EK1.06	X						2022
	EK1	Malabrigo – Traslaviña BI-630 ibilbideko obra	EK1.07		X					2021
	EK1	La Herrera – Malabrigo BI-630 ibilbideko obra	EK1.08		X			●		
	EK1	Traslaviña – Turtzioz BI-630 ibilbideko obra	EK1.09		X			●		
	EK1	La Escrita – El Callejo BI-630 ibilbideko obra	EK1.10		X			●		
	EK1	El Callejo – La Cadena BI-630 ibilbideko obra	EK1.11		X			●		
	EK1	Garraio jasangarria: BIZIPARK	EK1.12		X					2023
	EK1	Garraio jasangarria: BIZIPUNTO	EK1.13		X					2023
	EK1	Traslaviñako biribilgunea	EK1.14		X					2025
	EK1	Gueñes - Sopuerta errepideko zorua hobetzea	EK1.15		X					2025
	EK1	Kadaguako tunelak	EK1.16		X					2025
	EK1	Kadagua ibaiko (Arbuio) oinezkoentzako eta bizikletentzako pasabidea	EK1.17		X				●	
	EK1	Gueñesko trenbideen trazadura leheneratzea	EK1.18		X				●	
EK2 Aktibo turistiko eta kulturalen arteko lotura	EK2	Autokarabanentzako aparkalekuen eskaintza handitzea	EK2.01	X						2023
	EK2	Errealitate Birtual Areagotua	EK2.02	X						2023
	EK2	Turismo-plataforma digitala	EK2.03	X						2022
	EK2	Aktibo turistikoen eta garraio jasangarriaren arteko lotura	EK2.04	X						2024
	EK2	Enkarterri Bike & Walking	EK2.05	X						2023
	EK2	Ekitaldi berezien garapena	EK2.06	X						2022
	EK2	Zallako artisten gunea	EK2.07	X						2024
	EK2	La Encartada Fábrica-Museoan jarduketak egitea	EK2.08		X				●	
	EK2	Karpínen hobekuntzak gauzatzea	EK2.09		X					2023
	EK2	Turismoa sustatzeko ekitaldia	EK2.10		X					2022
	EK2	Europako Triatloi Txapelketa 2022	EK2.11		X					2022
	EK2	1000 Gradutan	EK2.12		X					2023
	EK2	UNESCO Katedrarekin lankidetzan aritzea	EK2.13		X					2023

Aurrerapen-maila:
1 Bertan behera utzita
2 Hasi gabe
3 Diseinatzen
4 Gauzatzen
5 Burututa

Jarduketa bakoitzaren aurrerapen-maila

Aurrerapen-maila:
1 Bertan behera utzita
2 Hasi gabe
3 Diseinatzen
4 Gauzatzen
5 Burututa

EK4 5G hedapenaren diseinua, plangintza eta jarraipena

ENKARTERRI	JARDUKETAK		EJ	BFA	1	2	3	4	5
EK3 Hezkuntza- eta lan-munduaren integrazioa	EK3 San Viator (10 jarduketa)	EK3.01	X						2023
	EK3 Maristak Zalla (3 jarduketa)	EK3.02	X						2023
	EK3 Ikasleen absentismoa murrizteko programa	EK3.03		X				●	
		EK3.04	X						2024
	EK3 Eskola-garraioa	EK3.05	X					●	
EK4 Banda zabala hedatzea	EK3 Balmasedako LHko IKT zentroa	EK4.01	X						2024
	EK4 5Gren erabilera-kasuak – Droneen laborategia	EK4.02	X		●				
	EK4 Bizkaiko Foru Aldundiaren sareko eremu zuriak	EK4.03		X					2025
EK5 Enpresentzako espazioak sortzea	EK5 Longar partzela erostea Zallan (Elkartegi)	EK5.01	X	X					2022
	EK5 Gueñesen eraikina erostea	EK5.02	X						2022
	EK5 Elkartegia eraikitzea	EK5.03	X	X					2025
	EK5 Gueñesko eraikina zaharberritzea	EK5.04	X					●	
EK6 Bioekonomia eta ekonomia zirkularra sustatzea	EK6 Industriarekin lotutako proiektuak	EK6.01	X					●	
	EK6 Enkarterriko HUBa	EK6.02	X					●	
	EK6 Bioekonomiaren prestakuntza-proiektua garatzea EK6	EK6.03	X						2025
	Basque Desing Center | ekipamendua	EK6.04		X					2021
	EK6 Basque Desing Center |Prestakuntza	EK6.05		X					2022

2021-2025 aldiko aurrekontuaren erabilera

PROIEKTU SUSTATZAILEAK			PLAN ESTRATEGIKOAREN AURREKONTUA		
			ESLEITUTA	ERABILITA	erabilitako %
EK1	Barne- eta kanpo-mugikortasuna hobetzea	EJ	5.000.000	5.000.000	% 100
		BFA	28.420.995	19.208.022	% 68
		GUZTIRA	**33.420.995**	**24.208.022**	**% 72**
EK2	Aktibo turistiko eta kulturalen arteko lotura	EJ	4.000.000	4.000.000	% 100
		BFA	6.486.253	4.265.401	% 66
		GUZTIRA	**10.486.253**	**8.265.401**	**% 79**
EK3	Hezkuntza- eta lan-munduaren arteko integrazioa	EJ	3.000.000	3.000.000	% 100
		BFA	415000	100.000	% 24
		GUZTIRA	**3.415.000**	**3.100.000**	**% 91**
EK4	Banda zabala hedatzea landa-eremuak digitalizatzeko	EJ	4.000.000	0	% 0
		BFA	1.300.000	1.300.000	% 100
		GUZTIRA	**5.300.000**	**1.300.000**	**% 25**
EK5	Enpresentzako espazioak sortzea	EJ	5.000.000	5.000.000	% 100
		BFA	5.000.000	5.000.000	% 100
		GUZTIRA	**10.000.000**	**10.000.000**	**% 100**
EK6	Bioekonomia eta ekonomia zirkularra sustatzea	EJ	3.000.000	3.000.000	% 100
		BFA	150.000	180.158	% 120
		GUZTIRA	**3.150.000**	**3.180.158**	**% 101**
EK EPE, GUZTIRA			**65.772.248**	**50.053.581**	**% 76**
EUSKO JAURLARITZA			24.000.000	20.000.000	% 83,33
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA			41.772.248	30.053.581	% 72

EPEaren aurrerapen-maila 2020-2025 aldian

Proiektu Sustatzaileen aurrekontu osoa nola erabili den

	AURREKONTUA	ERABILITAKO ZENBATEKOA
1. Proiektu sustatzailea: Barne- eta kanpo-mugikortasuna hobetzea	33.420.995 €	24.208.022 €
2. Proiektu sustatzailea: Aktibo turistiko eta kulturalen arteko lotura	10.486.253 €	8.265.401 €
3. Proiektu sustatzailea: Hezkuntza- eta lan-munduaren arteko integrazioa	3.415.000 €	3.100.000 €
4. Proiektu sustatzailea: Banda zabala hedatzea	5.300.000 €	1.300.000 €
5. Proiektu sustatzailea: Enpresentzako espazioak sortzea	10.000.000 €	10.000.000 €
6. Proiektu sustatzailea: Bioekonomia eta ekonomia zirkularra sustatzea	3.150.000 €	3.180.158 €

Aurrekontuaren erabilera-ehunekoa proiektu sustatzailearen arabera

EK 1	% 72
EK 2	% 79
EK 3	% 91
EK 4	% 25
EK 5	% 100
EK 6	% 101

EK 1: Barne- eta kanpo-mugikortasuna hobetzea

AURREIKUSITAKO ERAGIN ERALDATZAILEA

- Jarduera-puntu nagusiekin konektatzeko erraztasuna, bai eskualde barrukoekin, bai eskualdetik kanpokoekin, oinarrizko zerbitzuen, jarduera ekonomikoaren, prestakuntzaren eta turismoaren esparruetan.
- Biztanleria Enkarterrira erakartzea eta bertan atxikitzea.
- Bide-segurtasuna eta eskualdeko mugikortasun-ardatz nagusien funtzionaltasuna pixkanaka hobetzea.

2021-2025 ALDIKO AURRERAPENAK

2021-2025 aldian, EK1 Proiektu Sustatzaileak mugikortasuna, konektibitatea eta bide-segurtasuna sustatu ditu Enkarterrin bideen eta trenbideen azpiegituretan gauzatutako eta mugikortasun jasangarriarekin lotutako jarduketen bidez (zenbait esku-hartze egiteko daude oraindik). Malabrigo–Traslaviña tartea amaitu da **BI-630 korridorean** (eskualdeko ardatz nagusia), eta La Herrera–Malabrigo, Traslaviña–Turtzioz, La Escrita–El Callejo eta El Callejo–La Cadena tarteak, berriz, ingurumen-adierazpenaren zain daude oraindik. Aurreikuspenen arabera, aurrera egingo da 2026an La Herrera–Malabrigo tartean. Jarduketa horien bidez bide-zorua, seinaleztapena, sarbideak eta segurtasuna hobetu nahi dira. **Kadaguako tunelak** ere egokitu dira, eta, hala, argiztapena, seinaleztapena eta gorabeheren kudeaketa modernizatu egin dira. Trenbideei dagokienez, **C5 linea elektrifikatzeak** aldiriko trenen anezka-zerbitzua abian jartzea ahalbidetu du; eta, bestalde, erakundeen arteko akordioei esker, aurrera egiten ari da **etorkizuneko 4. Linea** egiturazko irtenbidea izan dadin epe ertain eta luzera. Hala, Alonsotegirainoko trazadura zehaztu da, eta Matiko–Errekalde tarteko obrak 2027aren amaieran hasiko dira (aurreikuspenen arabera). Gainera, mugikortasun aktiboa sustatzeko irtenbideak ere txertatu dira, hala nola **Arbuioko oinezkoentzako eta bizikletentzako pasabidea**, **BIZIPARK**, **BIZIPUNTO** eta **La Roblako Bide Berdea (Gueñes)**.

ERAGINAREN ADIERAZLEAK

6 jarduketa
BI-630 errepideari lotuta

2 jarduketa
garraio jasangarriari lotuta

EK 2: Aktibo turistiko eta kulturalen arteko lotura

AURREIKUSITAKO ERAGIN ERALDATZAILEA

- Turismoa eskualdearen espezializazio-sektoreetako bat da eta, ondorioz, hori bultzatzekotan, aberastasuna eta zuzeneko nahiz zeharkako enpleguak sor daitezke.
- Enkarterriko turismoa –estatu-mailakoa zein nazioartekoa– hedatzea eta eskualdeko kultura- eta natura-ondarea sustatzea.

2021-2025 ALDIKO AURRERAPENAK

2021-2025 aldian, EK2 Proiektu Sustatzaileak aurrera egin du turismo- eta kultura-eskaintza konektatuagoa, jasangarriagoa eta identifikagarriagoa egituratzeko prozesuan; eta, horretarako, uztartu egin ditu harrera-azpiegiturak, digitalizazioa, mugikortasun aktiboa, ondarearen aktibazioa eta ekitaldiak. Harreraren arloan, **autokarabanentzako eremuen sarea handitu izana** nabarmendu behar da; izan ere, 10 nazionalitate baino gehiagotako bisitariak erakarri ditu, eta turismo ibiltariaren eta tokiko ekonomiaren arteko lotura sendoagoa ezarri du. Digitalizazioari dagokionez, **eskualdeko turismo-plataforma eta errealitate birtualeko zein errealitate areagotuko soluzioak** sustatu dira, 600 erabiltzaile baino gehiago lortuz ondare-espazioetan. Mugikortasunaren arloan, **Enkarterri Bike & Walking** ekimenak eta aktibo turistikoen arteko loturak ibilbide aktiboak egituratu dituzte **bizikleten, mantentze-lanetarako estazioen eta erreserba egiteko tresna digitalen** bidez; guztira, 1795 erreserba erregistratu dira 2023 eta 2025 artean. Hori guztiori osatzeko, **La Encartada Fábrica-Museoa**, **Karpin Fauna** eta antzeko baliabideak aktibatu egin dira, eta **Zallako Artisten Gunea** sustatu da kultura-espazio berri jardun dezan. Proiektua ekitaldi eta sustapen-ekintzen bidez osatu da, besteak beste: **Kirol Anitzeko Europako Triatloi Txapelketa**, **1000 Gradutan** ekimena eta **UNESCO Katedrarekin izandako lankidetza**. Horiek guztiak oso lagungarriak izan dira Enkarterri barnealdeko helmuga gisa kokatzeko, bisitarien profila dibertsifikatzeko, eta jarduera ekonomikoa sortzen laguntzeko.

ERAGINAREN ADIERAZLEAK

Autokarabanentzako 4 eremu
eskualdeko estrategian integratuak

1190 erabiltzaile
eskualdeko turismo-plataforman

EK 3: Hezkuntza- eta lan-munduaren arteko integrazioa

AURREIKUSITAKO ERAGIN ERALDATZAILEA

- Gizarte-kohesioa areagotzea, enplegagarritasuna hobetzea, eta hezkuntza-mundutik lan-mundura igarotzeko bidearen arrakasta goratzea; hori guztiori lanbide-heziketak eskaintzen dituen aukerez baliatuz.
- Gizarte-kohesioa azkortzea kolektiboak integratuz.

2021-2025 ALDIKO AURRERAPENAK

Egindako inbertsioei esker, **ikasgela eta laborategi aurreratuak** sortu ahal izan dira **elektromugikortasunaren, zahartze aktiboaren, fabrikazio gehigarriaren, bioteknologiaren eta energia-efizientziaren esparruetan**; eta, hala, San Viator LHIPI eta Maristak Zalla ikastetxeetako prestakuntza-inguruneak modernizatu egin dira. Jarduketa horiei esker, 9 prestakuntza-eskaintza berri txertatu dira: Goi-mailako 3 heziketa-ziklo, Erdi-mailako heziketa-ziklo 1, Oinarrizko heziketa-ziklo 1, espezializazio-kurtso 1 eta 3 ziurtagiri profesional. Eskaintza horiek bat datoz gorabidean dauden sektoreekin (elektromugikortasuna, baso-kudeaketa, mantentze elektronikoa, mendekotasunaren arta, soldadura, metalaren fabrikazioa eta energia-efizientzia) eta, beraz, matrikulak nabarmen handitu dira. Era berean, berrikuntza aplikatuko hainbat proiekturen bidez, enpresekiko lankidetza indartu da automobilgintzaren, energiaren, robotikaren eta digitalizazioaren sektoreetan. Sortutako ekosistemak transferentzia teknologikoa eta ikasleen enplegagarritasuna sustatu ditu. Horrez gain, ekintzailetza sustatu egin da, eta horren isla dira, hain zuzen ere, bi ikastetxeetan Urratsbat eta antzeko programen bidez sortutako 15 enpresa-proiektu berriak. Oro har, jarduketa horiek industriarekin konektatutako eta lurraldearen garapen ekonomiko eta sozialera bideratutako Lanbide Heziketako eredu berritzailea sendotzen dute.

ERAGINAREN ADIERAZLEAK

-% 35 eskola-uztearen tasan
2021-2024 aldian

-% 19 langabezia-tasan
2021-2023 aldian

EK 4: Banda zabala hedatzea

AURREIKUSITAKO ERAGIN ERALDATZAILEA

- Gizarte-, hezkuntza-, enpresa- eta herri-zerbitzuen eskaintza gorakorra online eskuratzeko ahalmena ematea biztanleriari eta, bereziki, eremu sakabanatuetan eta urrunetan bizi diren pertsonei.

2021-2025 ALDIKO AURRERAPENAK

2021-2025 aldian, EK4 Proiektu sustatzaileak lurraldearen funtsezko beharrizanetako bati heldu dio: kalitatezko konektibitate digitala bermatzea Enkarterriko landa-eremuetan eta sakabanatutako guneetan.

Garatutako jarduketei esker, **zuntz optikoa hedatu** ahal izan da abiadura handiko interneterako sarbiderik ez zuten etxebizitzetara; hala, arrakala digitala nabarmen murriztu egin da, eta hiri-inguruneetakoen antzeko konektibitate-baldintzak bermatu dira landa-eremuan.

Ordura arte merkatuaren inbertsiorik jaso ez zuten landa-udalerri eta -auzoetan metatu da hedapena, konexioa eskainiz etxebizitza isolatuei eta sakabanatutako guneei.

Herritarrek zerbitzu digitalak atzitzeko duten ahalmena hobetzeaz gain, telelanerako, enpresak digitalizatzeko eta landa-udalerrietan jarduera ekonomiko berriak garatzeko baldintzak ere hobetu ditu proiektuak.

ERAGINAREN ADIERAZLEAK

Etxebizitzen % 93,5
estaldura lortu dute

Atarien % 86,63
konektatu egin da

EK 5: Enpresentzako espazioak sortzea

AURREIKUSITAKO ERAGIN ERALDATZAILEA

- Eskualdea enpresak erakartzeko eremu erakargarri gisa kokatzea jasangarritasunaren aldeko apustua egiten duen ingurune batean.
- Hazteko aukera emango die eskualdeko enpresei, eta, hala, enpresa-jarduera eta -zerbitzu berriak sustatzeko eragile bihurtu ahal izango dira Enkarterrin.

2021-2025 ALDIKO AURRERAPENAK

2021-2025 aldian, EK5 Proiektu sustatzaileak aurrera egin du Enkarterrin kalitatezko enpresentzako espazioen eskaintza handitzeko eta hobetzeko prozesuan eta, hala, enpresak eskualdean ezartzeko, hazteko eta sendotzeko oinarrizko baldintza indartu egin du. **Zallako Elkartegia** amaitu egin da dagoeneko, eta guztiz erabilgarri dago; izan ere, 2022an hasi zen partzelak erosteko prozesua, eta 2025ean bukatu. Elkartegi hori abian jartzeari esker, enpresa-eskaintza moderno eta funtzionala lortu da, eta enpresa berriak ezartzeko oztopoak murriztu dira, jarduera ekonomikoa lurraldean bertan garatzea erraztuz.
Hori guztiori osatzeko, **ENKARTERRI HUB** delakoak –EK6 proiektuari lotuta– etorkizunean garrantzi handia izango duten sektoreetara bideratutako enpresa-ahalmena txertatzea ahalbidetuko du.

Oro har, EK5 proiektuak lurraldearen lehiakortasuna hobetzeko, jarduera ekonomikoa erakartzeko eta Enkarterrin aukera ekonomiko berriak sortzeko palanka bihurtzen laguntzen du enpresentzako espazioa.

ERAGINAREN ADIERAZLEAK

7786,81 m²
erabilgarri Zallako Elkartegian

9 enpresa
martxan

EK6: Bioekonomia eta ekonomia zirkularra sustatzea

AURREIKUSITAKO ERAGIN ERALDATZAILEA

- Prozesuetan teknologia txertatzea lehen sektorea modernizatzeko eta industrializatzeko.
- Barne-ekintzailetza sustatzea, eta enpresak sortzea eta erakartzea.
- Eskualdean «enplegu berdea» eta «bata zuriko enplegua» sortzea.

2021-2025 ALDIKO AURRERAPENAK

EK6 Proiektu sustatzaileak bioekonomia eta ekonomia zirkularra ditu Enkarterriko produkzio-eraldaketaren ardatz, eta berrikuntza, jasangarritasuna eta garapen ekonomikoa uztartzen ditu. Proiektuak Basque BioDesign Center eta antzeko azpiegiturak erabiltzen ditu nagusiki. Basque BioDesign Center biodiseinuarekin eta biomaterialekin lotutako prestakuntza, esperimentazioa eta prototipatzea eskaintzen dituen espazioa da, eta ideia prototipo bihurtzeko prozesua errazten duten **laborategi eta ekipamendu teknikoak** ditu.

ENKARTERRI HUB delakoak bultzada hori sendotuko du, ikerketaren eta enpresen arteko elkargunea izango da, eta espazioak, zerbitzu teknikoak, prestakuntza eta ekintzaileentzako laguntza eskainiko ditu. Zentroa Lanbarri kaleko eraikinean kokatuko da, Gueñesen; gaur egun, eraikina azken eraikuntza-fasean dago, eta ia 3000 m² izango ditu (beheko solairu bat eta beste hiru solairu). Bioekonomiari eta ekonomia zirkularrari lotutako proiektu berriak bultzatzea, enpresen sorrera sustatzea eta eskualdeko enplegagarritasuna hobetzea dira HUBaren xedeak, eta, aurreikuspenen arabera, gutxienez 15 proiektu garatuko dira bertan datozen urteetan. Gainera, EK6 proiektuak prestakuntza eta enplegua ere hartzen ditu barne. Ildo horretan, San Viator LH Ikastetxearekin lankidetzan dihardu, zentroak **enbriogenesi somatikoko laborategia**, **landareak hazteko berotegia** eta antzeko azpiegiturak baititu (gaikuntza, ekintzailetza eta enpresa-ehunarekiko lotura indartzera bideratuak).

ERAGINAREN ADIERAZLEAK

3157 m²

2026ko bigarren hiruhilekorako